

Nicole & Martin antzerki konpainia ibiltaria Diman egongo da

13. orrialdea

Nafarroako Foru Komunitatea torneo irabazi dau Amaia Aldaik

Finala, Maddi Barrokal eta Itxaso Erasunen kontra jokatu eben Amaia Aldaik eta Nora Mendizabalek eta 22-16 irabazi eben, sano txapelketa onari amaiera emanaz. Harmailetan, 1.600 zale inguruk ikusi eben partidua. **11. orrialdea**



Espainiako Bertikaleko Txapelketa irabazi dau Onditz Iturbek

11. orrialdea

Bedia, Ubide, Arantzazu eta Dima jaietarako prest

Bedia eta Ubiden sanjuanak eta Arantzazu eta Diman sanpedroak ospatuko ditue.

Jai sasoi bete-betean dago Arratia. Igorrek jarraituten dau herriko jaiak ospatuten eta Bediak, Ubidek, Arantzazuk eta Dimak dana prest daukie herriko jaiak ospatuteko. Auzune askotan be ospatuko ditue sanjuanak edo sanpedroak. San Juan suak biztuko ditue herri guztietako hainbat landatan, udako solstizioa, hau da, urteko egunik luzeenak eta gaurik laburrenaren dirala ospatuteko.

Ez dago ospakizunik musika barik eta kontzertu ugari egongo dira jaietan. Akerbelz eta Oxabi, Bedian egongo dira; Feos Pero Majos, Zirkinik bez eta Ilargia, Ubiden; Balarrasa eta Kristonak, Arantzazun eta Neomak eta Liher, Diman, besteak beste. Euren erritmoan, gauak jantzan pasetako aukerea egongo da bariku eta zapatuetan.

Kontzertuez gainera, jai egitarau guztietan, lehiaketa gastronomikoak, umeentzako jarduerak, karta joko txapelketak eta pelota partidua edo herri kirolak dagoz, eta herri bakoitzean bereak baino ez diranak be bai. Aitazekoak dira, barbarako, Bediako antxinako auto eta motorren erakusketa; Ubideko plazan arbola altxatzea; Arantzazuko Larrain jantzea plazan eta Dimako bertso-saio musikatua. **5., 6. eta 7. orrialdeak**



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Gure Eskuren argi lerroan parte hartzeako izena emon daiteke

Gure Esku plataformaren ekimenez, garagarilaren 2an, Pirinioetan argi lerro bat egin gura da Higer lurmuturretik Creusera euskal eta katalan herrien autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko. Parte hartu gura dabenek izena emon leikie Gure Eskuren webgunean. **6. orrialdea**

ARRATIA

Jaietan gaueko autobus zerbitzua egongo da herrietara bueltetako

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM), Zornotzako Udalagaz batera, herriko jaietako egun nagusietan, gaueko autobus zerbitzua ipini dau, 02:30 eta 05:00etako orduetegiagaz, Arantzazun izan ezik. Arantzazun, 03:30ean izango da. **7. orrialdea**

ZEBERIO

Metal doinuek hartuko dabe Zeberio bagilaren 18an

Rat-zinger taldea da kartelburu eta Elizabeltzek, 4 Vilains-ek eta Basakik osotuten dabe kartela. Zubialde eskolako ikasleek be emondia eskainiko dabe.

Bertoko taldeek osotutako kartela da eta euskerearen presentzia be bermatzen dauana. Metalaren barruan estilo desbardinak entzun ahal izango dira eta, zuzenekoetan ohikoa danez, ikuskizuna be eskainiko dabe taldeok.

Herri guztiarentzako jai izatea gura dabe Onakaos taldeko antolatzaileek eta eguerdi partean hasiko da jai Paella Lehiaketa bategaz.

Kontzertuak 19:00etan hasiko dira. **8. eta 9. orrialdeak**



AREATZA BONO DENDA

EROSKETAK %20 MERKEAGO

1

EROSI ZEURE BONODENDA 20 EUROTAN UDALETXEAN

- Aurkeztutako NAN bakoitzeko gehienez 3 bono erosi ahal dira (16 urtetik gorakoek).
- 400 bono.

2

BONOAK 25 EUROTAN TRUKATU AHAL DITUZU BONODENDA SALTOKIETAN

BONOA behin bakarrik erabili ahal da, hiru gai kontuan hartuta:

- A) Ordaindu beharreko kopurua 25 euro baino gutxiagokoa bada, ez da dirurik itzuliko.
- B) Bonoak metatu daitezke.
- C) Debekatuta dago bonoen truke diru jasotzea.

AREATZAKO UDALEKUA Ayuntamiento de Areatza

AREATZAN MERKATARIEN ELKARTEA ASOCIACION DE COMERCIANTES DE AREATZA

Literatura txokoa

KRAKOVIA

24 lerro. Zer begitaten jakuz, gizakioi ezinegoana edo artegatasuna eragiten deuskuen lekuek, aireportua, meazulo zein ospitalea, besteak beste? Zelango buru-gorputzaldiagaz erantzuten deusagu situazioari? Noraino jasan daroagu holango deslekuok –idazlearen berbea erabiliz– izetuten deuskuen ondoeza, txiker edo handi, baina, beti be, gogonahigabe?

Gure erantzun ohiko eta naturala izaten da, defenza eta uzkurdua gitxiendik, hasarrea eta atsekabea ostera, gehienetako erreakzioa.

Ba, orriotara dakargun eleberraren protagonistak umorea dauka tresna eta dohai nagusi, batzutan baltza izateraino, dara-

bilan autodefensa nagusia, ziurbakotasunaren osteak dakarren ikarari aurre egiteko.

Bestetik, holango deslekuetan zelango giza hartu-emonak egosi doazen itzalak be, zerikusi nabarmena damaio egoera gainditu ahal izateko, katu-zuloan ule asko galdu gura ez badogu.

Landabasok grazia itzela erakusten dau trantze larrietako unekadetan irudimen ariketa sorta zabalari ekinez, protagonistak darabilen kexu eta piperra ederto ehunduz, egoerak, irakurleak bereganatu eta bat egiteaz batera, irribarrea eragin dagiotson, bitartean kultura erreferentziak han-hor-hemen barreiatuz: kantu letrak, frantsesa, ingelesa, gaztelania zein euskeraz; margolari,

aktore, fisikari, musikarien izenak eta abar, egoerak halan eskatuta barre eragileztat baliatuz.

Narrazioan zehar agertzen diran personaiak, era berean, goitibehera astintzen ditu narratzaileak, ondo astindu be; batzuek, gozotasunez, bestetzueri mingostasuna ereinda, hurrekoak edota urrinekoak badira be.

Nire ustez badago akatsen bat edo beste: errepikakor gertatzen dira egoerak, behin eta barrero erakusten deusku egileak, berrogeta hamar orrialdetan edo, trinkotu beharreko ipuina luzakera handitu egiten dau eta. Laburtuago izan balitz, alegia, ahogozamenari luzaragoan eutsiko leuskio irakurleak.

Dana dala, gomendagarria



Goizalde Landabaso Etcheverry

Krakovia

Erein argitaletxea, 2019

Ospa Taletik

160 orrialde

udan hondartzan, ahozpeze edo atinik, irakurteko liburu aproposo aproposa.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Bagilaren 13tik 19ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 20tik 26ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 27tik garagarriaren 3ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g

Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunetan orduo 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduo: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduo: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduo.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduo. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduo.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduo. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduo.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduo.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduo. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduo.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduo.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduo. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduo.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduo.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarrizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzino arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresea (Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Lemoa, Ubide, Zeanuri eta Zeberio) eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (V). Kale berbakunea sustatu guran

Aditz bat hartu eta beragaz alkarrizketa bat sortuko dogu.

Joan aditza:

- Nondik hator?
- Ni menditik ñatona. Hi nondik hator ba?
- Ni Bilbotik ñatok.
- Joango gozana zeozer hartzean?
- Bai! Gustura joango nintikok.

- Nondik zatoz?
- Ni menditik nator. Zu nondik zatoz ba?
- Ni Bilbotik nator.
- Joango gara zeozer hartzean?
- Bai! Gustura joango nintzateke.

ERETXIA

Hezkuntzea, merkaduaren logikearen pean ipintearen arriskuak

Ideologia neoliberalaren arabera, aukera desbardinaren artean aukeratu ahal izatea ona da beti. Horren arabera, merkaduak, salgai dagozan produktuak aurkezteko esparruak dira. Baina kalidadea ez da ezaugarri bakarra produktu bat arrakastatsua izateko: merkeenak izan daitezke merkadua gehien okupetan dabenak, edo kalidadearen eta prezioaren arteko erlazino onena daukienak.

Ekonomia kapitalistek bizitzako bazter guztiak inbaditu ditu (ekonomia ez ezik, gizarte osoa be kapitalistea da); dana merkantzia bihurtu dau (lurra, ura edo lan indarra bera barne) eta aspaldi itxi eutsan eskari bat beteteari, eskaria bera sortzera pasetako. Harrezkero, hiper-konsumo sosteniduezina bultzatu dau, planeta osoa eta bertoko bizidun guztiak amildegiaren ertzean ipiniz.

Kapitalismoa guztiz amaitutea epe luzerako helburua dala onartuta, epe laburrean, ezkerretik, balio handiko gauza batzuk merkaduaren atzaparretatik ateraten saiatu izan gara, Antonio Machadogaz bat etorri esatean benetan balio dauanak ez daukala preziorik. Hezkuntza babestu beharreko gauza baliotsu horreetako bat da eta Hezkuntza merkadu logikearen pean ipintea oso zitala eta arriskutsua da. Izan be, bateraezina da hezkuntza izan behar danagaz.

Ikuspegi hau egun nagusi dan horretatik sano urrun dago. Ez bakarrik gainera jatorkunagaitik, Gasteizko Legebiltzarrean gehiengo zabal batek sinatu dauan hezkuntzari buruzko akordioa ikusita. Aspaldidanik hezkuntzaren kontzeptu merkantilistea infiltratan dago bazter guztietatik.



TERE MALDONADO

Filosofia irakaslea

gertatzen da, erlijino katolikoa-gaz: ikasle bakarra egon ezker, irakaslea ipini behar jako. Eta ikasgela, jakina.

Horrez gainera, institutuko irakasle guztiok dakigu zein handia dan presinoa, eta zenbat lekutatik datorren, ahalik eta ikasle gehienek ikasgaia gainditu dagian. Egun, ez da institutu ontzat hartzean eskakizun maila altua daukana, bere ikasleetatik gehiago aterateko gai dana, gehiago irakastea lortzean dauana (sasoi baten, holan izaten zan), notarik altuenak ipinten ditua baina. Jakina, gero, selektibidade proben emaitzek (ikastetxe guztietarako bardinak) ñabartu egiten dabe hori nahikotxo.

Ikastetxe publikoen irakasle taldeek ikasleen azken notea ipintean dilema moral biribila izaten dabe. Jakin badakie nota horrek batez besteko notarako zenbaituko dauala, aukerak zabaldu edo kenduko deusazala ikasleari (bekak eskuratzeko edo goi mailako ikasketak egiteko). Askotan, badakie be ondoko itunpeko zentroak, ikasleak erakarteko, notak puzeza jotzen dauala.

Gauzak holan, bidezkoa da gure ikasleak nota zehatzago baina batzuetan bajuagoak ateratea institututik? Praktikan, gixtirako balio deuto ikasleari gero selektibidadeko emaitzek gauzak bere lekuan jartzea, eta bere batez besteko nota zertxobait igotea: institututik ateratean dituan notek eragindako desabantaila nabaria da.

Holangoa da eskaintzearen eta eskariaren legea. Gure lana, irakastea baino gehiago, bezeroak erakartea bihurtu da: jada ez gara irakasleak, moto saltzailak baino. Eta salduteko orduan publizidadea funtsezkoa da. Ikasleen nota aldi berean produktua eta publizidadea da: nota onak, publizidade ona, bezero asko; nota txarrak, bezero gixti. Lehia ikasgaien artean, irakasleen artean, ikastetxeen artean. Holan gagoz.

Oharra: kontuz, batzuek kea besterik ez dabe salduten. Gora kapitalismoa.

Ikastetxeetan egunero gertatzen diran gauza asko horren erakusgarri dira. Euretako baten bakarrik ipiniko dot arretea.

Oin dala urte asko, institutuetan, gure ikasleei eta euren familiei nahieran irekitako ibilbideak eskaintzeko aukerea ez ezik, nahitaez eskaini behar deutseguz. Suposatzen da ibilbide horreetan ikasleek aukeratu ahal izango dabela zein irakasgai egin, eta protagonista aktiboak (*sic*) izango dirala euren ikasketa planaren diseinuan. Baina egia-ostekoaren munduan gagoz, eta aurrekoa nahiko guzurra da; izan be, irakasgai asko eskaini ahal izateko, irakasle talde handia izan behar da ziurtatuta, ikasgai desbardinak aldi berean emoteko ikasgela asko, eta gixtieneko ikasle kopuruaren gaineko muga zorrotz larregirik ez. Hau, ikasgai bategaz bakarrik

NETFLIX
EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKTUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



IGOR ESTANKONA

Bilbo halakoxea zanean

Atzamarretan sua dauka, atzamarretan haizea dauka. Askotan ez deustu entzun be egiten, bere barruan dago-ta entzuten aire bat barrokkoa, edo behar bada soluzionau ezinik azken harmonia obsesiboa.

- Nik La Peñan ikusi dodaz whisky sartzean zanetatik, heroinarik ez baegoan.

Eta amak baserri bat erosi eban Orozkon seme-alabak hango anbientetik aterateko zeozelan, eta Lemoako Makatzan be ibiltan zan harantzahonantza.

Baina berak oindino maite dau osaba trabestiaren irudia Palankan gitarrea jotan. Dirua eukanean ondo ibiltan ei zan, osterantzean txarto.

Putari puta eta txuloari txulo esaten eutsien Bilbo abandona bat ikusten dot sarri bere begietan. Oingo mizkeriaren kontra erabiltan dauz batzutan halako irudiak. Ibaizabal lohi

batetik datoz bere musika zerutiarak, igarri-igarrian.

- Zazpi neska gintzezan harreetan pisuetan, eta gero ni. Atera kontuak.

Amusean harrapetan dot askotan. Esaten deusat: Solinis! Eta bere begikunea da lautearen sei harietatik eskegita dagoan ilargi-joarena.

Behin Gortea kalean putek ebatzi eben greba egitea. Bizkaiko egunkari guztiek titulau eben halaxe: "greba". Behar-leku bat dan edo ez dan dabiz oindino politikariak mundu osoan.

Musika bera be produktu kultural bat da, Estankona.

ZERTZEAN



KEPA INTXAUSTI

Gaia jarrita: "Igorreko jaietako txupina"

1

Aurpegien barrea eta ezarrien korapilo itzela egun pozgarrien harro ta pozik nago ohore barrien lehendik ere zorretan nengoen herrien.

2

Igorre sumatzen da argitsu ta alai urte biren ostean badau gogo bai alaitasunez, pozez eta umorez blai gorputzek "hauts ein" arte egingo dogu jai.

3

Hizkuntza arrotzak gertu dagozen garaian ni bat nator geurea goraiatu nahian jaietan erabiliz lau berba jarraian euskerak mingainetan dantzan egin daian.

* Kepa Intxaustik Igorreko jaietan botatako txupinean kantautako bertsoak.

BEGI TXINDORRA

Garagarriaren 2an igorreztarrok be Haltzamendira joango gara. Euskal Herritik Pirinio aldera joandako familiak, baita Kataluniatik joandakoak be, Auñamendiak argiztauko doguz, Kantauri Itsasoan hasi eta Mediterraneoraino, aldarrikapen ozen bat egiteko: Herri bat gara!

Etorri gura dozuena Bidarrai inguruan aukera asko daukazue ostatua hartzeako. Arratiako herrietatik joango garan hainbat parte hartzaile Amestoya kanpinean alkartuko gara, eta bertatik Haltzamendira joango gara.

Urtean zehar nikiak saltzeako eta informazioa zabalduetako kalean egon gara. Igorreztar asko hurbildu zarie, argazkian ikusten dozuena Jon Maia be hurreratu zan guregana, eta daborduko badaukaue zuen nikia etxean, baina oindino hartu barik zagozienok bagilaren 24an aukerea izango dozue, mahaia ipiniko dogu-ta.

Beraz, hartu zuen nikia, izena emon eta etorri geugaz Haltzamendira! Guztion artean lortuko dogu!

Igorreko Gure Esku



Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredoriak@gmail.com

agoa
hagin klinika

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igorre-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Ikerjator Zerbaita 901
R.P.S. 21/06

UBIDE

Arbolea eta sua izango dira jaietako protagonistak



Erredakzioa

Tradizioari eutsiz, aurten be arbolearen bila joango dira basora Ubideko herritarrak, gero arbolea plazan altxau eta bertan egongo da jaietan. Sua be biztuko dabe San Juan bezperan ilundu bezain laster, 22:00etan. Txarangek, erromeriek, playbackak, DJak eta Ilargiak talde akustikoak ipiniko dabe musikea. Herri kirolek, herri afariak eta antzerki ikuskizunek osotuten dabe jaietako egitaraua.

Bagilak 23, eguena

17:00etan, arbolearen bila.
19:00etan, arbolea altxau.
23:00etan, San Juan sua.

Bagilak 24, barikua

13:00etan, kopaua.
18:00etan, Luis Polanco eta Asier Armentiarren arteko azkora desafioa 6 kana erdikotara.
19:00etan, Sutan txarangea.

21:00etan, Ubideko ume eta gazteen playbacka.
23:00etan, Feos Pero Majos taldea.

Bagilak 25, zapatua

12:30ean, Patata Tropikala taldearen *Kalean otso, etxean uso* umeentzako ikuskizuna.
18:00etan, Cía Barsanti taldearen *Legea gu gara* antzerkia.
21:30ean, herri afaria (mozorro-tuta).
23:30ean, Zirkinik Bez taldeagaz erromeria.
Ostean, DJ Pinttatzen.

Bagilak 26, domekea

10:00etan, puzgarriak.
13:00etan, bits jaia.
18:00etan, pelota partidua. Imanol Agirre eta Jon Uriarte vs. Jagoba Bengoa eta Ander Sevilla.
20:00etan, Ilargiak talde akustikoa.
20:30ean, parrilladea.
22:00etan, atzen trakea.

BEDIA

Kalejiran joango dira San Juan suaren lekuraino bediaztarak jaietan

Hilaren 23an, eguenean, botako dabe txupina Bedian herriko jaietako protagonista. Aurreko domekea be, jai giroan pasauko dabe, azoka eta jubiladuen bazkariagaz.



Erredakzioa

Ha-ta guzti be, duda barik, momenturik bereziena, San Juan egunaren bezperan, gauerdian, izango da suak biztutean. Haraino kalejiran joango dira herritarrak, gauza txarrak sutan erre eta onak gordetera. Biba San Juan!

Erromeriek, lehiaketa gastronomikoen, karta joko lehiaketek, antxinako auto eta motorren erakusketeak, slalomak, umeentzako puzgarriak eta Akerbeltz eta Oxabi taldeen kontzertuek, besteak beste, osotuten dabe aurtengo jaietako egitaraua.

Bagilak 19, domekea

11:00etatik 14:30era, XX. esku-langintza eta elikagaien azoka.

14:30ean, Bediako jubiladuen bazkaria.

Bagilak 23, eguena

20:00etan, jaien hasierako txupina, trikitixegaz alaituta eta sardinak.
20:30ean, Jokaldi.
22:00etan, Jauziri jantza taldea.
24:00etan, suaren lekuraino kalejireka trikitixegaz alaituta.
24:00etan, San Juan sua.

Bagilak 24, barikua

11:00etan, meza nagusia.
12:00etatik 13:30era, umeentzako puzgarriak.
17:00etatik 19:30era, umeentzako puzgarriak eta bitsa.
18:30ean, Tortilla Lehiaketarako izen emotea.
20:00etan, tortillak aurkeztuteko

unea.
21:00etan, herri afaria.
23:00etan, Akerbeltz taldea.

Bagilak 25, zapatua

12:00etan, XIII. Paella Lehiaketarako izen emotea.
14:00etan, paellak aurkeztuteko unea.
17:00etan, Mus Txapelketea Batzokiak antolatuta.
17:00etan, bazkalosteko bingoa.
17:00etan, umeentzako tailerrak.
18:00etan, XXXIV. Briska Txapelketea (bikotekide bat behintzat Bediako). Izen emotea 6 euro bikoteko.
22:00etan, Oxabi eta DJ Markelin.
02:30ean eta 05:00etan, autobusa Arratia, Galdakao eta Zornotzara.

Bagilak 26, domekea

12:00etan, VI. antxinako autoen eta motorren erakusketea.
12:00etan, pintxo potea txosnatan.
15:00etan, IV. Bediako Slalom-a Club Automovilístico Bizkaia antolatuta San Lorenzo poligonoan.
18:30ean, Tio Teronen Semeak.
20:00etan, Roberto Urrutia eta bere mariachia.
21:00etan, txokolatea eta jaien amaierako txupina.

ARTEA

Arteako plazan gaubela egin eben berrogei lagun inguruk, migratzaileen alde

Erredakzioa

Euskal Herriko etorkin taldeek eta harrera taldeek deituta, zazpi herritan gaubela egin ziran bagilaren 8an, begibistan ipinteko migratzaile askok kalean lo egin behar izaten dabela harrera duina egiten ez jakielako. Arteako plazan, 40 lagun inguruk egin eben gaubela Artea Sareak, OEE Arratiak eta Basoak deituta.

Lanparra egin eban iluntzean eta guardasolpetan babestu ziran ekintzaileak. Gauean atertu eban baina kartoiak eta plastikoak ipini behar izan ebezan lurrean, lo egin ahal izateko. "Lozakueta sartuta eta bankuen gainean, baktaxa egokitu zan lekuan, errealidadean pasetan dan moduan" emon eben gaua. Euskal Herria harrera herria, Denontzako harrera duina, Eskubideak denontzako, Kalea ez

da leku duina lo egiteko eta Etxebizitza eskubidearen alde izan ziran aldarrikapen leloak.

Iluntzeko 20:00etan alkartu ziran Arteakoak eta ekintzaren zergaitia komentau eben hainbat hizkuntzatan. Gero, Herriko Bentan prestatutako afaria afaldu eben "beste edozein egunetan, harreran dagozantzat prestatzen dan moduan". Afalostean jantzaldia egon zan Kolonbia, Etiopia, Maroko, Mauritania eta Euskal Herriko ermitmoakaz. Ostean, *performamcea* eta gaupasa egin eben. Batzuk 12:00ak arte geratu ziran, beste batzuk 03:00ak arte eta beste batzuk gosaltzeko ordura arte. Lo gitxi baina alkar ezetuteko eta bizitza konpartiduteko aukerea izan ebela dino parte hartu ebanetako batek.

Euskal Herri mailako ekintza
Bilbon, Barakaldon, Donostian,

Irunen, Gasteizen eta Iruñean be egin ebezan aldarrikapen gaubelak. Euskal Herria etorten diran etorkin askok kalean lo egin behar izaten dabe, etxerik ez daukielako. Hori dala-ta, jente lar bizi da kalean, eta euretako asko harrera duina izan ez daben migratzaileak dira.

Ekintza honegaz, harrera taldeek erakundeei eskatu eutseen etorritakoei bizitza duina bermatutea.



Ubide



Jai batzordeak eta
Ubideko Udalak
jai zoriontsuak
opa deusuez

Gora San Juanak!

ARANTZAZU

Balarrasa eta Kristonak taldeen kontzertuak egongo dira sanpedroetan

San Pedro eguna bagilaren 29an izan arren, Arantzazuko jaien hasikerako txupina, garagarrilaren 1ean, barikuan, botako dabe arrastiko 19:00etan. San Pedro egunean be egongo dira jarduerak baina batez be astegoienean ospatuko dira jaiak.

Erredakzioa

Barikuko gauean Balarrasa Aramaioko rock taldeak eta Kristonak-lehen Eskean Kristo- talde arratiarrak joko dabe. Zapatu gauean be erromeria egongo da Basajaun taldeagaz eta ostean pijama gaua.

Lau eguneko egitaraua prestatu dabe Arantzazun sanpedroak ospatuteko. Musikeak, mota guztietako lehiaketek, umeentzako bits jaiak eta playbackak, besteak beste, ondo pasetako aukerea emongo deutsee bertokoei eta Arantzazura hurreratzen diranei.

Barikuan, garagarrilak 1, Arratiako herrietara bueltetako autobusa egongo da goizaldeko 03:30ean.

San Juan bezperan be sua biztuko dabe udako solstizioa ospatuteko tradizioari eutsiz.

Bagilak 23, eguna

18:00etan, egurra bildu sua egiteko. 20:00etan, sardina eta sahieski errea. 21:30ean, sua izetu.

Bagilak 29, eguaztena

13:00etan, meza. 14:30ean, herri kopaua. Izena emon behar da udaletxean hila-



ren 24ra orduko.

17:00etan, Musika Eskolako ikasle-
leen emonaldia.

Garagarrilak 1, barikua

19:00etan, jaien hasikerako txupina. 19:30ean, Larrain jantzea eta plaza jantzak.

22:00etan, Balarrasa eta Kristonak taldeen kontzertuak. Ostean, Sakatu elektrotzarangea.

Garagarrilak 2, zapatua

10:00etan, Paella eta Tortilla Lehiaketetarako mahaiak banatutea. 12:00etan, Txubelaso eta Futbolen Txapelketea Herriko Tabernan. 14:00etan, paella eta tortillen aurkezpena. 17:30ean, Txinga Txapelketea.

18:00etan, Mus eta Briska Txapelketa. Montero taberneak Mus Txapelketea antolatu dau eta Herriko Taberneak Briska.

19:00etan, playbacka.

21:30ean, Basajaun taldeagaz erromeria eta pijama gaua.

Garagarrilak 3, domekea

11:30ean, umeen eskupelota partiduak.

13:00etan, nagusien eskupelota partiduak.

16:30ean, umeentzat bits jaiak plazan.

17:30ean, Txomin eta Txistuman deskontzertuan ikuskizuna Herriko Tabernan.

18:30ean, bingo solidarioa.

19:15ean, txokolata.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Izena emon daiteke Pirinioak argiztatzeko Gure Eskuren ekimenean parte hartzeako

Erredakzioa

Gure Eskuk antolatuta, garagarrilaren 2an, katalan eta euskal herritarrek 300 gailurretik gora argiztatuko ditue Pirinio osoan zehar. Farol bereziak eta linternak baliatuz, argi-lerro bat osatuko dabe Higer lurmuturretik Creusera, Atlantikotik Mediterraneora, herri bien autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko. Euskal herritarrek 115 gailur argiztatuko ditue, Jaizkibeletik Benasqueraino. Tontor honeetan guztietan izen emotea zabalik dago www.guresku.eus webgunean.

Gailur "berdeak" eta "gorriak" bereizten dira. Gailur berdeak Euskal Herrian dagoz, eta jentehienak egiteko modukoak dira. Herri bakotzak gailur berde

bat edo batzuk daukaz izentautu eta izena emotean, jenteari gailur horreek proposatuko jakoz. Mobikortasun murriztua daukien personentzat egokiak diran gailurak be badagoz.

Gailur gorriak barriz, Erdialdeko Pirinioan dagoz, eta mendizale trebatuentzat bakarrik dira egokiak. Horregaitik, izen emote mugatua

daukie eta pirinioetakobidea@gureskudago.eus posta elektronikora idatzita behar da.

Mendietara joan barik be, parte hartu ahal da. Izan be, herri batzuetan ekintza sinboliko bat egingo da garagarrilaren 2ko iluntzean, eta beste batzuetan, aurreko asteetan emongo da jakitera zelan parte hartu.



AREATZA

Martxan dago Bonodenda kanpaina bonuak amaitu arte

Erredakzioa

400 bonu ipini dabez salgai Areatzako Udalak eta Orburu



merkatarien alkarreak, parte hartzean daben saltokietan erabilteko. Bonuak 20 eurotan erosi ahal dira udaletxean eta komertzioetan 25 euroko balioa izango dabe.

Aurkeztutako NAN bakoetako gehienez 3 bonu erosi ahal izango ditue 16 urtetik gorakoek. Bonuok multzotu daitezke, baina erosketak egiterakoan, ordaindu beharrekoa bonuen baliora heldean ez bada, ez da dirurik bueltatuko.

ARATIA

Urkiolara errogatibea hilaren 18an izango da

Erredakzioa

San Antonio egunaren osteko zapatuan izaten da arratiarren errogatiba eguna, aurten bagilaren 18an. Autobusez, kotxez edo-eta ohituari eutsiz oinez be joan daiteke Urkiolara. Oinez doazenak, goizeko 07:00retan urtengo dira Dimatik eta 07:30ean, Zeanuritik, eta 11:00etan batuko dira danak Urkiolako santutegian. Herri guztien sarrerako prozesinoa berreskuratuko da eta meza ostean parte hartzaileek argazki ofiziala egingo dabe Urkiolako Santutegiko eskaileretan



eta 13:00etan autobusak urtengo dira erromesak euren herrietara erroteko. Aurtengo lemea "Argiri Esker, alkartasun bidean" da. Autobusez joan gura dabenei parrokiaren emongo deutsez zehaztasunak.

DIMA

Bardintasunaren gaineko saioa deitu dau udalak hilaren 17rako

Erredakzioa

Dimako II. Bardintasun Plana dala, saio bat antolatu da bagilaren 17an, 17:00etan, eskolako kameran. Udala herritarrek batu eta herrian andra eta gizonen bardintasunaren arloan dagozan arazo eta preminen inguruan hausnartzea dauka helburu saioak.

"Zeintzuk dira Diman andren eta gizonen bardintasunaren gainean doguzan kezka eta beharrak?" itaunari erantzungo deusie bertaratu-takoek, danon artean Bardintasun Plana adostuteko. "Entzuketa fase honetan Dimako eguneroko bizitzan, eremu desbardinetan, andrek

bizi daben errealitatea ezetu gura dogu" azaldu dabe Udaletik.

Bigarren saioa

Elhuyar aholkularitzaren eskutik, bigarren saioa da hau, lehenengo martiaren 3an izan zan. Saio bien artean beste kolektibo batzuk batu dira Elhuyarrek. "Jaso eben enkargua izan zan lehenengo planaren ebaluaketea egitea eta bigarren plana proposatzea. Metodologia parte hartzaileagaz saio irekiak egin dira" azaldu deutso BEGURI Lurdana Acasuso zinegotziak. Asmoa da plana prest eukitea uda osterako.

"Lehentasan handiko gaia da, indarrean dagoan Bardintasun Plana 2010ekoa da eta harrezkerotik asko aldatu dira gizartea eta eguneroko arazoak. Ardura handia daukagu eta sintonia handia dago udaleko alderdi guztietan gai honeri jagokonean".

ARRATIA

Jaietan gaueko autobus zerbitzua egongo da

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM), Zornotzako Udalgaz batera, herriko jaietako egun nagusietan, gaueko autobus zerbitzua ipini dau. Arratia eta Amorebieta-Etxanoko gazteek, kotxea hartu beharrez, autobusa erabili dagien.

Zerbitzua bagilaren 11n jarri zan martxan, Igorreko jaietan, eta urri lehenengora arte, Galdakaoko jaiak izan arte, egongo da. Amorebieta-Etxanoko jaietatik bueltetako aukerea be eskainiko da.

Arratiako herrietan, Lemoan izan ezik, autobus geralekueetatik urten go da autobusa; Lemoan, Korreosen ondotik. Amorebieta-Etxanon, anbulatorio ondoko geralekuan hartu behar da eta Galdakaon, Laboral Kutxan, JB Uriarte kalean.

Egun eta orduak

Jaietatik bueltetako autobus zerbitzua, Igorren, jaietako zapatu bietan, bagilaren 11n egon zan eta bagilaren 18an gongo da. Bedian be, zapatuan, bagilaren 25ean; Arantzazun, garagarrilaren 1ean, barikuan, eta hurren-

go egunean, Diman izango dira. Amorebieta-Etxanoko Karmenetan, gau bitan eskainiko da zerbitzua: garagarrilaren 16an eta 23an. Lemoan, garagarrilaren 30ean, egongo da etxera bueltetako autobusa eta Zeanurin, abuztuaren 13an. Areatzan, abuztuaren 26an, barikuan, eskainiko da zerbitzua. Artean, urri lehenengoaren 9ko gauerako ipini dau autobusa AUMk. Amaitzeko, urri lehenengoaren 10ean eta 17an Galdakaotik bueltetako autobusak egongo dira.

Ordutegiari jagokonean, 02:30ean eta 05:00etan hartu ahal izango dira autobusak, Arantzazun izan ezik. Arantzazutik, 03:30ean hartu ahal izango da autobusa herrira bueltetako.



AREATZA/LEMOA

Bagilaren 18an zabalduko dabez ugerlekuak Lemoan eta 20an Areatzan


Erredakzioa

Lemoako ugerlekuak, bagilaren 18tik urri lehenengoaren 18ra arte egongo dira zabalik. Goizeko 11:00etan zabalduko ditue ugerlekuak eta 19:30ean zarratuko dabez bagilean, 20:30ean garagarrilean; 20:00etan abuztuaren eta 19:30ean urri lehenengoan.

Prezioei jagokienean, prezio desbardinak dagoz, norbanakoaren ala familiaren egoerea kontuan hartuta.

Areatzakoak barriz, hilaren 20an zabalduko ditue. Goizeko

11:00etan zabalduko dira ateak, 20:00ak arte. Sarreren prezioak desbardinak izango dira lan eta jai egunetan. Bonuak egongo dira, eta Arantzazu, Artea, Igorre eta Dimakoek, errola agiria erakutsita, Areatzako herritarren moduan pagauko dabe. Bonuak hilaren 18an eta 19an hasiko dira egiten 11:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara eta gero ugerlekuak zabalik dagozala be egin ahal izango dira. Aurten Aldamin taberna zabalduko da bagilaren 20tik urri lehenengoaren 20ra.



DIMA

Neomak eta Liher-en kontzertuek eta herri kirolek animauko dabez sanpedroak

Bagilaren 29an, eguaztenean, 18:00etan, botako dabe txupina Dimako Bertso Eskolakoek.

Erredakzioa

Edadekoak lehenago hasiko dira herriko jaiak ospatuten; izan be txupinaren aurretik 85 urte egin dabenei omenaldia eta jubiladuentzako bazkaria egongo dira.

Eguaztenetik domekara arte, kontzertuek, erromeriek, herri kirolek, lehiaketa gastronomikoez, bertsolariak eta antzerkiak, besteak beste, ipiniko dabe umorea eta jai giroa herrian.

Kontzertuei jagokienean, panderoak, perkusinoa, ahotsa eta trikitixea jotzen dabenei zazpi andra gazte osotutako Neoma taldea egongo da bariku gauean; eta zapatuan, Liher talde ezaguna, 2020an, *Hemen herensugeak daude* indarkeria matxista sufridu dauan andra baten bizipenak ardatz dituan diskoa atera ebanek emongo dau kontzertua.

Bagilak 29, eguaztena

12:00etan, mezea.
13:30ean, 85 urte egin dabenei omenaldia frontoi txikian.
14:00etan, jubiladuentzako bazkaria frontoi txikian.
18:00etan, jaien hasikerako txupina Dimako Bertso Eskolearen eskutik.
19:00etan, *Matraka Culinary Center* musika emonaldia.

Argazki erakusketa egongo da egunean zehar.

Bagilak 30, eguena

17:00etan, arrasti pasa tortillagintzan.
20:00etan, VII. Jaietako Pelota Txapelketako finalak.
22:30ean, Elizagoien ahizpak erromeria.

Garagarrilak 1, barikua

17:00etan, Panpotx Kultur Elkarrearen eskutik "Euskaraz jolasten".
22:00etan, Neomak taldearen kontzertua.
24:30ean, Urrats taldeagaz erromeria.

Garagarrilak 2, zapatua

12:00etan, Gazte Barri Dantza Taldearen emonaldia plazan.
18:00etan, Bizkaiko Lasto Jasotze Txapelketea, Bizkaiko promozino

mailako Trontza Txapelketako 2. jardunaldia eta azkora erakustaldia frontoi handian.

20:00etatik 22:00etara, Andraizearen eskutik taloak frontoi txikian.

22:00etan, Liher taldearen kontzertua.

24:00etan, Euskal presoeren eskubideen aldeko ekitaldia.

01:00etan, DJ Bull.

Garagarrilak 3, domekea

10:00etatik 15:00etara, *Arimatik eskuetara* Dimako andren artelaren erakustaldi/azokea informazio bulegoan.

18:00etan, bertso-saio musikatua. Bitartean, Argazki Lehiaketearen sari banaketea.

20:00etan, Zanguango antzerki taldearen *Bestaldean* ikuskizuna.

Bestaldean ikuskizuna.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Auzuneetako San Juan eta San Pedro

Erredakzioa

Beste leku askotan legez, Arratian be suak biztuten dira San Juan bezperako gauean udako solstizioa ospatuteko. Bedian eta Ubiden sanjuanetan izaten dira herriko jaiak eta herri horreetan plazan biztuko dabez suok. Jaietako ezinbesteko jarduerak da. Baina Arantzazun, Areatzan, Artean, Diman, Igorren, Lemoan, Zeanurin eta Zeberion be, auzune eta plazetan, biztuko dabez suak, eta herritarrek suen inguruan barriro batuko dira, gauari eta bizitzari magia apur bat emon guran. Musikea eta janaz lagunduta.

Arantzazun, sua 21:30ean biztuko dabe, baina askoz lehenago batuko dira herrikoak, 18:00etan, sua biztuteko egurra biltzeako eta gero, sardina eta sahieski errea jango dabe. Areatzan, 18:30ean hasiko dira Arratiako Musika Eskolako ikasleak

txokoz txoko musikea eskaintzen eta 20:00etan sardinak eta San Juan sua egongo dira Zubizaran.

Igorreko San Juan auzunean, Dimako Oban eta Zeanuriko Altzuegan be, sanjuanak ospatuko dabez. Zeanuriko Undurragan eta Lemoako Elorriagan, barriz, sanpedroak.

Altzuega (Zeanuri)

Bagilak 23, eguena

15:00etan, jaien hasikerako txupina.
21:00etan, sardinak, txarri giharra eta txokolatea. Sua eta trikitixea.

Bagilak 24, barikua

12:00etan, mezea eta barauskarria.

Bagilak 25, zapatua

19:00etan, Bola Txapelketea eta umeentzako jolasak.
21:00etan, auzo afaria. Izena emon hilaren 20a baino lehen. Afalostean zozketea. (Jaietan sobretan dan dirua, San Juan ermitarako izango da).

San Juan (Igorre)

Bagilak 23, eguena

19:30ean, jaien hasikerako txupina. Ondoren sardina jana Bilbao anaiak trikitilariakaz.

Bagilak 24, barikua

12:00etan, mezea San Juaneko ermitan eta ondoren Bilbao anaiak trikitilariak.

Undurraga (Zeanuri)

Bagilak 29, eguaztena

Mezea eta barauskarria.

Garagarrilak 2, zapatua

Auzo bazkaria. Arrastian, Eingo taldea eta txitxi-burduntzia.

Garagarrilak 3, domekea

Goizean, auzotarren Tortilla Txapelketea. Arrastian, Bola Txapelketea eta umeentzako jolasak. Jaien amaierara txokolategaz eta zozketeagaz.

ZEBERIO METAL

Herri txikietakoko metal jaialdien erakarmena

Rock gogorrenagaz gozatuteko aukerea egongo da Zeberion, bagilaren 18an. Metal estiloko musikeak, gizarte klase baten amorrua edo-eta estetika gotiko batez bizitzaren laburra, epelkeria barik adierazoten dauz besteak beste eta zale asko ditu Euskal Herrian be. Metalaren eszenaleku naturala uria dala emoten dauan arren, mendiko herri txikiak hain gustuko dauan kontrastea eskaintzen deusie musika estilo honeri eta asko dira herri txikietan izaten diran metal jaialdiak. Zeberiokoa be sendotzen doa urtean-urtean.



2021eko Zeberio Metaleko irudia.

txandea izango da. 02:00etatik aurrera, DJ bat egongo da.

Rat-Zinger

Aurtengo Zeberio Metaleko kartel-burua, Rat-zinger taldea, hain zu-

zen be, 2009an sortu zan Bilbon eta punk eta hardcore estiloko musikea egiten dau. Taldekideak, Podri, Pinky "Calico", Javi "Puñañales" eta Xabi del Val dira. Eleizearen eta faxismoaren kontrako

berbak ditue euren kantuek. Taldearen izenak Ratzinger kardena-larenagaz egiten dau berba joko.

Sortu ziranetik ehun kontzertu baino gehiago jo ditue eta bost disko ditue kalean. Hasikeratik da-

Erredakzioa

Kartel anitza dakar Zeberio Metal jaialdiaren zazpigarren edizinoak. Musika aldetik, Rat-zinger taldearen punk eta hardcore estilotik, rock eta metalaren artean dagoan Basakiren muskaraino, Elizabetzen shock rock edo 4 Villains-en freak show-tik pasauta, hain zuzen be. Hizkuntzen aldetik be anitza da, euskeraz, ingelesez eta gaztelaniaz diralako talde honeen kantuen berbak.

Betiko lez, tokian tokiko apustua egin dau Zeberio Metalek, hurreko taldeak eskainiz. Rat-Zinger eta 4 Villains Bilbokoek, Elizabetz Bermeokoek eta Leioako Basakik osotuten dabe aurtengo kartela. Ostean, DJ bat egongo da metal estiloko kanturik onenak pintxetan.

Jai eguerdian hasiko da Paella Txapelketa batez. 12:00etan hasiko dira partaideak paella prestatzen eta 14:40ean aurkeztu eta sari banaketea izango da. Kontzertuak, 19:00etan hasiko dira. Lehenengotik, Zubialde eskolako ikasleek egingo dabe erakustaldi bat eta gero, Basaki, Elizabetz, Rat-zinger eta 4 Villains taldeen

Tokian tokiko apustua

egin dau Zeberio

Metalek, hurreko taldeak

eskainiz. Rat-Zinger eta

4 Villains Bilbokoek,

Elizabetz Bermeokoek

eta Leioako Basakik

osotuten dabe aurtengo

kartela

12:00 Paella txapelketa
14:30 Paellen aurkezpena eta sari banaketa
19:00etatik aurrera KONTZERTUAK:
19:00 Zubialde Eskolako ikasleen emanaldia
19:15 BASAKI
20:45 ELIZABELTZ
22:15 RAT-ZINGER
24:00 4 VILLAINS
02:00 DJ

LAGUNTZAILEA
oneKaos
zeberio
 udako lasterrena

f i

goz taldean, Calico Pinky (bajua), Podri (ahotsa) eta Javi Puñales (gitarra), baina baterian hainbat pasau dira 2010etik gaur arte.

Urte haretan, 2010ean, kaleratu euren lehen diskoa, *Cartas al Vaticano* izenekoa eta taldearen aurkezpen gutuna izan zana, estilo berezi bat erakutsiz: gordina. Diskoak bere papela bete eban arren, kontzertuak dira taldearen "habitat naturala" dinoe euren jarraitzaileek; izan be, kontzertuetan, eszenografia ikusgarriagaz, erakusten dabe taldearen maila, metal, punk eta rock soinuak bazean ditue eritmo handiko kantuetan joz.

Cartas al Vaticano (2010), *Crónicas de la destrucción* (2012), *Rock'n'Roll para hijos de perra* (2014), *No habrá piedad para nadie Vol.1* (2015) eta *Larga vida al infierno* (2016) albumek osotuten dabe euren diskografia.



Elizabeltz

Bermeoko talde hau 2018an sortu zan baina partaideek musika ibilbide luzea eginda eukien alde aurretik Ost, euskerazko metal talde mitikoan, Sinnerdolls edo The Hammer Killers taldeetan, hain zuzen be. Aitor Bengoa (gitarra), Joni bOST (bajua), Jonmi Garcia (bateria) eta Sergio Meaurio (ahotsa) dira Elizabeltzeko taldekideak. Ez dabe musika estilo konkretu bat jotzen, baina euren

musikea shock rock eta metalaren esparru zabalean kokatu daiteke. Euskerazko metala egiten dabe.

Aurten kaleratu dabe euren lehenengo albuma *Yersinia pestis* izenekoa.



4 vilains

2016an sortutako Bilboko taldea da 4 Vilains. Rocka eta metala, soinu modernoakaz nahasten ditue eta ikuskizun alternatibo egiten dabe musikea eta zirkua nahastuta, *Freak*

Show izenekoa. Estetika "apokalipsi-ostekoa" erabilten dabe.



Taldekideak, Malmudena (ahotsa), Eva (bajua), Xabi (gitarra) eta Alain (bateria) dira. 2019an argitaratu euren lehen diskoa *Freak Show*. Zuzenekoetan, harritu egiten dau publikoa taldeak, daukan proiektu bereziagaitik; izan be, hainbat hizkuntza (ingelera, gaztelera eta euskera) eta estilo (rock eta metala) nahastuten dabez.

Basaki

Taldea 1996an sortu zan Leioan Basaki taldea, eta egun hiru musikaririk osotuten dabe, Alfonso Rodriguezek (bateria), Natxo Velezek (bajua) eta Iker Herrerok (gitarra eta ahotsa).

Rockaren eta metalaren arteko mugan sailkatu daitezke talde honen kantuek. Soinu gogorrek gustau arren, melodiari garrantzi handia emoten deutsie; hau da, indarra eta melodia buztartzen ditue euren kantuetan.



CEPA Galdakao HHI
IKASTETXE PUBLIKOA ETA OFIZIALA
Helduen heziketa

·Euskara
·Gaztelania
·Ingelesa/Frantsesa
·DBH titulua
·Informatika
Eta gehiago...

Matrikula egiteko epea:
ekainaren 15etik 30era
eta irailaren 1etik 16ra.

www.epagaldakao.com · 94 456 60 98

Ellexalde 8, Kultur Etxea (Igorre) eta Arraibi 2 (Lemoa)

amorrortu
taberna - jatetxea - ostatua

OSTATUA

638 712 523

Zubiato 1, · 48130 LEMOA - Biskaia
www.alojamientolemona.com
info@alojamientolemona.com

begitu

beus

Arantzazu

Arantzazuko Udalak eta Jai Batzordeak

Jai askeak eta zoriontsuak opa deutsuez

BEDIA

Bediako Udalak eta jai batzordeak

Gora San Juan jaiak!

JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

HI TA NI BI Dima

Udala osatzen dogun pertsona guztien izenean, dimoztarroi San Pedro zoriontsuak opa deutsueguz.

Dimako Udala

PELOTEA

Umeentzako Frontoiko Topaketak Zeberion

Erredakzioa

Mandoia Zeberio Pelota Kirol Klubak, bagilaren 20tik 23ra, ordu biko saioetan, 17:00etatik 19:00ak arte, umeentzako Frontoiko Topaketak antolatu ditu Zeberioko Zubialde frontoian. Topaketetan, pala, zesta-punta eta eskupeletoa landuko dabe umeek. Sensibilizazio jolasak be egingo ditue partaideek.

Izen emotea hasita, eta "arpegi barriak" dagozala kontuan hartuta, gauza barriak egongo diran arren, Aste Santuko topaketen il-dotik joango dala bagilakoa azaldu deutso BEGITURI Beñat Garcia monitorea. Aurrekoan legez, sensibili-

zazio jolasak, ikusmenik ez dauan eta pelotea gustuko dauan ume baten narruan ipiniko ditu umeak.

Eskupeletoa bultzatzeaz gainera, frontoiko beste joko batzuk be umei ezetu arazotea daukie helburu topaketa honek eta pala eta zesta-puntako oinarriak ikasi eta pelotakada batzuk jokatzeo aukerea egongo da. Eskupeletoako partiduak be ez dira faltauko.

Izen emotea

Matrikulea, ume bakoitxeko 50 eurokoa da, baina neba-arrebek %20ko deskontua izango dabe. Edade aldetik mugatuta egon ez arren, Lehen Hezkuntzako umeak dira parte hartzean daben gehienak.



LASTO BOTATZE

Tubi txapelkunorde Bizkaiko Lasto Botatze Txapelketan



Erredakzioa

Arratzun jokatu zan, bagilaren 4an, Bizkaiko Lasto Botatze Txapelketea. Oingoan dimoztarrak ez eban txapela lortu eta etxean jokatzen eban Beñat Obieta arrazuarra izan zan irabazlea. Jose Martin Bustinza "Tubi" bigarren egin eban. Jon Loiola Dimakoak be parte hartu eban eta laugarren egin eban.

Zazpi kirolari, Bizkaiko lasto jaurtitzailerik onenak, neurtu ziran Arratzun; tartean, Tubi dimoztarrak, txapelkun historikoa. Obieta izan zan irabazlea, lasto meta 5,60 metroko distantzian botata. Tubik 5,50 metroko dis-

tantzia egin eban eta Mikel Agirrek osotu eban podiuma. Jon Loiola Dimakoa taularen erdian geratu zan.

Lasto Botatze zein Lasto Altzate Txapelketetako txapel guztiak daukaz Tubik eta bera zan fabritoa. Horregaitik, sabore gazi-gozoa itxi deutso berari bigarren postu horrek "lesino bat medio, hile eta erdi geldi egonda, txapelketan parte hartutea ebatzi neban. Txapelketa egunean gauzak ez ziran ondo joan, indar barik ikusi neban neure burua" azaldu deutso BEGITURI txapelkunordeak. Lesinoa dala-ta, ez daki Euskadiko Txapelketara aurkezterik izango dauan.

MENDIA

Jokin Zabala Kantabriako Kilometro Bertikaleko Kopako podiumera igon da

Erredakzioa


Atzen lasterketea bagilaren 4an jokatu zan Fuente Dé-n. Jokin Zabala Bediako mendi lasterkariak, bosgarren amaitu eban 2,5 kilometro eta 950 metro desnibeleko lasterketa honetan. Hiru probek osotuten dabe Kantabriako Kilometro Bertikaleko Kopa eta Castro Valneran lortutako bosgarren postuagaz eta Trevisoko bigarrenagaz, hirugarren egin eban Zabalak.

Atzen proban dana eukan jokoa Bediakoak, lehenengo hiruren artean 6 puntuko aldea baino ez egoalako. Dana emoten urten zan, eta lasterketa erdia baino gehiago bigarren postuan egin eta

gero atzenengo 500 metroan ezin izan eutsan eutsi bigarren postuari. Ha-ta guzti be, podiuma egitea lortu eban eta pozik dago. "Kilometro bertikaletan espezialistak diran lasterkariakaz batera, aurrean egon

nazalako" azaldu deutso BEGITURI.

Zabalak kilometro bertikaleko kopa bi jokatu ditu aurten, Kantabria eta Iparraldeko kopak, hain zuzen be, eta bietan igon da podiumera, hirugarren eginda.



Argazkia: Diego Winitzky.

2022ko JAIETATIK ETXERA BUELTATZEKO AUTOBUSA

Zerbitzu hau ARRATIAko udaletako eta AMOREBIETA-ETXANOKo gazteei zuzenduta dago.

IGORREKO SAN ANTONIOAK NOIZ: Ekainaren 11an (Larunbata) Ekainaren 18an (Larunbata) ORDUTEGIE: 2:30etan eta 5:00etan NON: Autobusen paradan	BEDIAKO SAN JUANAK NOIZ: Ekainaren 25ean (Larunbata) ORDUTEGIE: 2:30etan eta 5:00etan NON: Autobusen paradan	ARANTZAZUKO SAN PEDROAK NOIZ: Uztailaren 1ean (Ostirala) ORDUTEGIE: 3:30etan NON: Autobusen paradan	DIMAKO SAN PEDROAK NOIZ: Uztailaren 2an (Larunbata) ORDUTEGIE: 2:30etan eta 5:00etan NON: Autobusen paradan
AMOREBIETA-ETXANOKO KARMENAK NOIZ: Uztailaren 16an (Larunbata) Uztailaren 23an (Larunbata) ORDUTEGIE: 2:30etan eta 5:00etan NON: Anbulatorioko paradan	LEMOAKO SAN INAZIOAK NOIZ: Uztailaren 30ean (Larunbata) ORDUTEGIE: 2:30etan eta 5:00etan NON: Korreosen ondoan	ZEANURIKO ANDRA MARIAK NOIZ: Abuztuaren 13an (Larunbata) ORDUTEGIE: 2:30etan eta 5:00etan NON: Autobusen paradan	AREATZAKO SAN BARTOLOMEAK NOIZ: Abuztuaren 26an (Ostirala) ORDUTEGIE: 2:30etan eta 5:00etan NON: Autobusen paradan
ARTEAKO ANDRA MARIAK NOIZ: Irailaren 9an (Ostirala) ORDUTEGIE: 2:30etan eta 5:00etan NON: Autobusen paradan	GALDAKAKO SANTAKURTZAK NOIZ: Irailaren 10ean (Larunbata) Irailaren 17an (Larunbata) ORDUTEGIE: 2:30etan eta 5:00etan NON: Galdakoo Laboral Kutxian (J. B. Uriarte)		

FUTBOLA

Gizonezkoen Arratia Bk kopea lortu eban eta Lemoako Harrobik ez dau mailaz igotea lortu

Erredakzioa

Ligea irabazitako gizezkoen Arratia B taldeak bagilaren 5ean jokatu eban Galdakaon, Sestao River Bren kontrako partidua. Bigarren mailako talde bietako irabazleak kopea lortzeako lehia ziran eta Arratia B taldeak lortu eban garaipena: 0-3.

Lemoako Harrobi taldeak barriz, Lurraldeko Lehentasunezko Mailara igoteko promozioa jokatu dau. Lehenengo partidua bagilaren 4an jokatu eban etxetik kanpo Atletismo Ortuellaren kontra eta 2-1 galdu eban. Jente asko hurbildu zan Lemoatik Ortuellara eta giro itzela egon zan futbol zelaian. Bueltako partidua osteraren 11n jokatu eban Arlonagusian eta Lemoako Harrobik ezin izan eban garaipenik lortu, banakoagaz amaitu zan partidua. "Urte oso polita izan da,

pena gertu geratu garalako, baina pozik gagoz bizi izan dogunagaz" adierazo dabe Lemoako Harrobiko zuzendaritzatik.

Udako futbol kanpusa

Arratia Futbol Taldeak aurten be antolatu dau Udako futbol kanpusa. Bagilaren 20ra arte emon daiteke izena hilaren 27tik garagarriaren 1era egingo dan kanpuserako. Futbolearen bakarrik ez, urtekeraren zein jolas eta tailerrak egiteko aukera izango dabe 2010 eta 2017 urteen artean jaiotako neska-mutilek. Udalekua goizez izango da, 09:30etik 14:00etara.

Ume bakotzeko prezioa 100 eurokoa izango da, horregaz eguneko armozua eta kamiseta bat be sartzean dira. Izena emoteko 617 803 440 telefonora deitu edo cdarratia@cdarratia.com helbidera idatzi behar da.

GOITIBEHERRAK

Arratiako Freeskate Taldeak goitibehera lasterketak antolatu dauz gurean

Erredakzioa

2022ko Euskal Inertzia Kopako erlojupeko lasterketa bi jokatu dira bagilean Arratian. Lehenengoa hilaren 25ean izango da Zeanurin eta hurrengo egunean Diman. Proba honek Sputnik Koparako be izango dira puntuagarriak.

Zeanuriko lasterketan, lehen lasterkariak 17:00etan urtengo dira Soloeta auzotik. Eskola pareko aldatzetik bajatuko dira goitibeherak, Arregia auzoan amaituteko. Hilaren 26an barriz, Dimako lasterketa goizez jokatu da, 10:30etik aurrera. Olazabal auzotik Santururaino doan aldatza

izango da ibilbidea. Proba bietan Arratiako Goitibehera Txapelketa jokatu da.

Inertzia Kopa martxan

Momentuz, Euskal Inertzia Kopako hiru lasterketa jokatu dira Legazpi, Ormaiztegi eta Zaldibarren. Bertan estreinau dira Arratia Freeskate Taldeko gazteak. 60 parte-hartzaileko sailkapenean, erdian dagoz Hodei Garate eta Axular Solaguren hasibariak eta Ekain Aurrekoetxea hamairugaren, independente modura. Unai Loiola osteraren hirugarrena da Uretano kategorian. Amaituteko, Inhar Altuna hirugarrena da kopilotuen sailkapenean.



MENDIA

Atletismo Federazioen Espainiako Bertikaleko Txapelketa irabazi eta Espainiako Trail Running Classic-ean txapeldunorde izan da Onditz Iturbe

Erredakzioa

Bagilaren 12an jokatu zan Cercsen (Bartzelona) Atletismo Federazioen Espainiako Bertikaleko Txapelketa. 4,6 kilometro eta 1.050 metro desnibeleko lasterketa izan zan. Onditz Iturbek 48:09ko denporeagaz irabazi eban proba. Bigarren Sheila Avilesek egin eban eta hirugarren Silvia Larak.

Urtekeran, zazpigarren amaitu eban Laia Montoyak ipini eban eritimoa. "Oso arin hasi zan eta jakinda ondo igoten dala, ez neutsan alde egiten itxi gura, beraz, bere atzetik joaten saiatu nintzan. Hasikeran apur bat iges egitea lortu eban, baina harrapatutea lortu genduan beste bik eta hirurok. Gogor egitea ebatzi neban, zer etorren be jakin barik. Edozelan be lortu neban eustea eta gora ondo ailegau nintzan, sensazio onakaz eta disfrutetan" azaldu deutso begituri txapeldunak.



Trail Running Classic

Bagilaren 4an jokatu zan Rioparren (Albacete) 18 kilometro eta erdiko lasterketa eta Igorreko lasterkariak zidarra lortu eban 01:33:49 denporeagaz, Sara Alonsoren atzetik. Holan, Europako Trail Running Txapelketarako txartela lortuz. Yolanda Martinek osotu eban podiuma. Hirurak talde berekoak dira, Atletismo Bilbaoko kideak, hain zuzen be.

Sara Alonso irabazleak minutu eta erdi atera eutsan Iturberri. "Ez

dakit bezperako biagegaitik izan ete zan, baina hasikeran hankak gogor sentidu neban. Edozelan be, kilometroak aurrera egin ahal solteago sentidu nintzan eta eritimoa hartu neban. Sarari distantzia murriztu joan nintzan eta momentu baten harrapau be egin neban. Baina atzenengo beheranzkoan aurea hartu eustan eta nik denporea galdu egin neban ze jausi be egin nintzan" azaldu deutso Onditz Iturbek BEGITURI.

PELOTEA


Amaia Aldaik Nafarroako Foru Komunitatea torneo eta Mallabiako Biharko Izarrak irabazi dauz

Erredakzioa

Finala, Maddi Barrokal eta Itxaso Erasunen kontra jokatu eban Nafarroa Arenan bagilaren 5ean, eta 22-16 emaitzeagaz irabazi eban. Harmailtan, 1.600 zale inguruk ikusi eban partidua. Eta hilaren 10ean, Mallabiako Biharko Izarrak Txapelketearen finala jokatu eban Aldaik, Olatz Arrizabalagaren kontra eta 19-22 irabazi eutsan.

Nafarroan hainbeste jenteren aurrean jokatzek, urduri ipini eban Dimako pelotaria. "Laurak nahiko urduri eta tensino askogaz sartu ginan partiduan. Finala jokatutea ez da erraza eta ikusi genduan frontoia beteta... ez dogu inoz bete frontoi bat! eta horrek eragina izan eban gudan" azaldu deutso Aldaik BEGITURI. Ez ebal bere jokoa egin eta nahiz eta txapela lortu, bere maila erakutsi ez ebalakoan, pena puntu batez geratu zan pelotaria.

Partidua parekatuta egon zan hasikeran, baina gero takada handi bat lortu eban Aldaik eta Mendiza-



balek. Sakeagaz min handia egin eban dimoztarrak, 6 tantu sakez lortuta. Mendizabalek eta Aldaik pelotari abiadura handia emon eutsien eta holan partidua irabazi eta txapela jantzi eban. "Oso pozik amaitu neban. Partidu polita da gogoratzeke, frontoia bete egin zalako, Noragaz jokatu nebalako eta txapela lortu nebalako".

Txapelketa ona egin dau Aldaik. Txapelketa zentrauta hasi eban Aldaik eta hasikeran bikote eukan Ane Mendiburuk. Baina Mendiburuk txapelketa itxi eban, eskuak ez eukazalako ondo eta finalerdietan hasi zan Aldaik Mendizabalek jokatu. "Ilusioa egin eustan

Noragaz jokatzek, beragaz beste txapelketa batzuk jokatu dodazalako. Final horretan ezin izan genduan txapela lortu eta oingoan, txapela jantzeko esperantzea eta arantzea aterateko gogo geunkan" dino Dimakoak. "Pozik nago egindako lanagaz eta gainera, Nafarroa Arenan helburua lortu genduan Norak eta biok, txapela jantzea. Noragaz jokatutako hirugarren finala izan zan eta izugarriko poza izan zan irabaztea".

Mallabian be txapela

Lehia gogorra egon zan Olatz Arrizabalaga eta Amaia Aldairen artean Mallabiako Biharko Izarrako txapela jantzeko. Hasikeran, Arrizabalaga ipini zan aurretik, alde handia atereaz, 10-1. Baina dimoztarrak Arrizabalagaren huts bat aprobetxatu eban sakea errekeretako eta markagailuan hurreratzen joateko eta 17na bardinguteko. Hortik aurrera, Aldaik, Arrizabalaga baino zentratuago egon zan partiduan eta partidua irabazi eban.

KONTZERTUA

Bihotz Gorospek *Bihotz anpuluak* emonaldia eskainiko dau Lemoan

Erredakzioa

Bagilaren 17an, 20:00etan, Bihotz Gorospe Lemoako Kotxepin Kultur Etxean izango da *Bihotz anpuluak* aurkezten. Bertan, berak sortutako kantuak, *Amagana* dokumentalekoak, tartean, eta beste egile batzuen kantuen bersinoak joko ditu.

2021ean hasi zan Gorospe *Bi-*

hotz anpuluak bildumako kantuak zuzenean emoten eta harrezkerotzik, Diman emonaldi bat eta Igorren bi emon ditu, beste batzuen artean. Oin Lemoara dakar kantautore igorretarrak bere lanik personalena, sano kontzertu hurrekoa eskainiz.

Gorosperen Youtube kanalean be entzun daitezke bildumako kantuak.



IPUIN KONTAKETEA

Aniztasuna, bardintasuna eta ekologiaren aldeko ipuin kontaketea Lemoan

Erredakzioa

Antton Aranburuk eta Lore Ibar-gurenak, 4 eta 8 urte bitarteko umeei zuzendutako *Bidaia liluragarria* ipuin kontaketea egingo dabe bagilaren 29an, 18:30ean, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean.

Ikuskizun honetan, Perlik eta

Koxkolok, bidaia liluragarri bat egitera konbidauko ditue umeak, musikea eta jantzearen laguntzeagaz. Aniztasuna, bardintasuna eta ekologiaren aldeko kontakizuna da, familia giroan ondo pasetako. Leku zoragarriak eta oso lagun bitxiak aurkituko ditue munduan zehar, eta ilargira be helduko dira bidaia honetan.



EUSKEREA

Udan ere euskaraz eta datorren ikasturterako aurrematrikulazino kanpaina abiatu dauz AEK-k

Erredakzioa

Ikasturtea amaituten danean ikasleei udan be euskeraz berba egiteko aukerea emon guran, AEK-ko Mintzalagun dinamikeak, Udan ere euskaraz izeneko kanpaina martxan ipini dau, uda partean batuko diran berbalagun taldeak sortzeako helburuagaz. Izena, euskaltegian, <http://emanzena.praktikatu.eus> helbidean edo 662 199 033 telefonora whatsapp bat bialduta emon daiteke.

Beste alde batetik, datorren ikasturtean euskerea ikasten hasi edo segidu gura dabenezat eskaintza berezia iragarri dau AEK-k. Igazko prezioa mantentzeaz gainera, bagilaren 30a aurretik izen-emotea egiten dabene ikasle guztiek %5eko deskontua eta ordainketa malguagoa izango dabe. Gai-

nera, lehentasuna izango dabe ikastaroetan.

AEK daborduko hasi da ikasturte barria prestatzeko lanetan eta bere helburu nagusia "jente gehiagorengana" ailegetea da. Ho-

lan, euskaltegiaren aurrez aurreko taldeak, autoikaskuntza, online ikastaroak eta jardun biko ereduak be eskainiko dabe. Horregaz batera, Foruko barnetegia urte osoan zabalduko dabe.



PINTUREA

Jose Reyesek irabazi eban Zeanuriko Aire Zabaleko Margolan Lehiaketeta

Erredakzioa

Jose Reyes Rodriguezek irabazi eban Zeanuriko Aire Zabaleko

Margolan Lehiaketetaren laugarren edizinoan, 600 euroko saria jasoz. Bigarren Areatzako Irati Petuya Inguzak egin eban eta honek 300

euro jaso ditu sari moduan, Zeanuriko lan onenari saria Rut Martinez Muñozentzat izan zan. Bederatzi artistek hartu eben parte.



Rut Martinez.



Lan irabazlea.

**IPINI ZURE IRAGARKIA
BEGITUN!**

Informazioa: 649 979 115 eta inigoirua@begitu.eus

KIÑU GAZTETXEA

Kiñu Gaztetxeak irabazi dau prozesu judiziala



Erredakzinoa

Aprilaren 27an izan zan Igorreko Kiñu Gaztetxea hustutzea ekarri ahal eban epaiketea, baina Sabadell banketxeko abogaduak ez ziran aurkeztu. Epailak hilabete epea emon eutsan banketxeari, baina ez dau errekursorik aurkeztu, eta errekursoetarako epea amaituta, prozesu judiziala irabazi dabela aldarrikatu dabe Gaztetxekoek.

Kiñu Gaztetxeko kideek 2020ko abuztuaren 9an jakinarazo eban Sabadell Banketxeak eta honen menpeko Solvia higiezinen agentziak gazteak ka-

leratzeko prozesua ipini ebela martxan. Urte bi egon dira Bilboko Okupazino Bulegoagaz lanean eta bitartean hainbatetan egin dabe berba bankuko negoziatzaileakaz. Baina negoziaketa amaitu barik, aprilaren 27an egoan programauta epaiketea. Sabadell Banketxeko abogaduak aurkeztu ez ziranez eta errekursoetarako epea amaitu danez, gaztetxekoek irabazi dabe prozesu judiziala.

Jasotako laguntzea eskertu eta "Gaztetxearen urteurren gehiagorik ospatuteko" prest dagozala adierazo dabe asanblakideek komunikadu baten.

ZIRKUA

Nicole et Martin antzerki konpainia ibiltaria Diman egongo da

Erredakzinoa

Bagilaren 16tik 19ra, Dimako eskolearen ondoan egongo da Nicole et Martin antzerki konpainiaren karpea. Lehenengo egun bietan, eskola-umeentzako izango dira euren emonaldiak eta astegoienean, publiko osoari zuzendutakoak. Ez da Dimara datozen lehenengo aldia eta aurrekoan arrakasta handia izan eben.

Bagilaren 18an, 19:00etan, *Wassilissa* eta hurrengo egunean, 12:30ean, *Arrantzalea eta haren emaztea* dira publikoak ikusi ahal

izango dituan ikuskizunak. Eskola-umeek, *La doncella sin manos* eta *Los músicos de Bremen* ikusiko ditue.

Sarrerak antzerki konpainiaren webgunean erosi daitezke.

Nicole et Martin

Nicole Gubler Schranz-ek eta Martin Gubler-ek osotuten dabe antzerki independenteko Nicole et Martin konpainia. Konpainia ibiltaria da Europa osotik ibiltzen dana eta arte eszeniko guztiak erabiltzen ditu euren sortutako lanetan. Lanok Grimm anaien ipuinetan inspirauta dagoz.



IKASGELA

Ikasteko gela bat zabaldu dau Udalak Areatzan

Erredakzinoa

Besteak beste materialen falteagaitik ikasgela zabalduetea atzeratu bazan be, bagilaren 7tik, ikasleek erabili ahal dabe udaletxean dagoan ikasgela barria. Hamabost mahai ditu ordenagailuentzako konexinoagaz eta internetara be badauka. Bakarka ikasteko da, taldean behar egiteko Gazteleku dago.

Erabili gura dabenek giltza eskatu behar dabe udaletxean. Hamabost euroko bermea ordainduta emongo jakie giltza. Astebarruan, 08:00etatik 21:00etara eta astegoienean, 09:00etatik 21:00etara erabili daiteke ikasteko espazio hau.

Bagilaren 6an, Asier Garcia alkateak eta Yazmina Beobide zinegotziak, ikasgela eta honen erabilerearen nondik norakoak erakutsi eutsiezan ikasle talde bateri.



DUNBA

La Arboledara urtekerea

Areatza herri eskolako 3. zikloko ikasleak

Lehen Hezkuntzako hirugarren eta bigarren zikloko ikasleok, maiatzean egun biko egonaldia egin genduan La Arboledako aterpetxean. Astebete berandua, Haur hezkuntzako eta Lehen hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleek be aterpetxe honetara joateko aukerea izan eben.

Aterpetxean, hainbat ekintza egin genduzan. Lehenengo egunean, arauak azaldu ondoren, logelak eta mahaiak ipinteko taldeak antolatu genduzan. Arrastian, talde bitan banandu ginan. Talde batek taloak egiten ebazan bitartean, besteak eskalatzera joan ziran. Gauean, La Arboleda herritik monitoreak ezkutaketa jolasten ibili ginan hango baz-



terraz ezetuteko asmoagaz.

Hurrengo egunean, paseo labur bat emon ondoren, meatzaldearen erdi-erdian dagoan Peñas Negraseko Ekoetxera joan ginan.

Hango paisaia izugarri gustau jakun eta bertako interpretazio zentruan zonaldeko maketak ikusteko eta inguruneak izan dituan eraldaketak ezetuteko aukerea

izan genduan. Bazkaldu ondoren, hur dagoan parke natural baten ginkana egin genduan. Gauean, mozarrotu ondoren, diskotekara joan ginan jantza egitera.



Azkenengo egunean, maletak prestatu ondoren, "matrikuletara" jolastu genduan. Gero, urtekereari amaierara emoteko, funikularrez autobus geralekura joan ginan, handik Areatzara abiatzeko.

Hiru egun horreetan, primeran pasetako eta gure betiko lagunak hobeto ezetuteko aukera parebako euki genduan. Areatzako ikasleok, inoz ahaztuko ez dogun esperientzia hau asko gomendatzen dogu.

AGENDEA

**BAGILAK 15
AREATZA**

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00etatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Udalekuetan izena emoteko atzen eguna <https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdM1QOBvIWHh8onhePu23hPWYBp0cBKDuftcDeD51mmZ9Z0zg/vewform> estekan.

18:00etan, III. Berdintasunerako Plana egiteko prozesuan parte hartzeako deialdia. Gazteei zuzendutako saioa. Gaztelekuan.

Bonodenda kanpaina bonuak amaitu arte.

ARRATIA

Hilaren 22ra arte, izen emotea Arratiako Goitibehera Txapelketan parte hartzeako, www.euskalkopa.com webgunean.

Udan ere euskaraz berbalagun taldeetan parte hartzeako izen emotea zabalik Kubulu euskaltegian, <http://emanizena.praktikatu.eus> helbidean edo 662 199 033 telefonoan.

Gure Eskuk antolatutako Pirinioetako argi lerroan parte hartzeako izen emotea zabalik www.gureesku.eus webgunean.

ARTEA

19:00etan, Kafrangak talde feministeak antolatuta, *Aurrera egin badugu* dokumentala eta zineforuma jaizkibeiko kide bategaz. Kultur Etxean.

IGORRE

Bonodenda kanpaina hilaren 30era arte.

Igorreko jaiak hilaren 19ra arte. 18:00etan, Makatzak talde ekologistek antolatuta, *Itsasoiko*, *itsasotik sasoko* dokumentala Kultur Etxean.

LEMOA

Hilaren 19ra arte, jaietako kirol txapelketetan parte hartzeako izen emotea.

Hilaren 19ra arte, udalekuetarako izena emoteko epea www.lemoa.net webgunean. 2006 eta 2010 bitartean jaiotakoentzat Mendexan, garagarriaren 5etik 9ra izango dira. Prezioa 30 euro.

UBIDE

Garagarriaren 10era arte, Ubidestroi Trail-en izena emoteko epea, www.kronoak.com webgunean.

ZEANURI

Abenduaren 1era arte, Udalk antolatutako IV. Argazki Lehiaketarako argazkia aurkezteko epea harrera@zeanuri.eus helbidean. Gaia: Zeanuri.

Garagarriaren 15era arte, Zeanuri Lorán Txapelketea.

ZEBERIO

Zemendiaren 30era arte, III. Argazki Lehiaketa parte hartzeako aukerea. Gaia: baserriko lanak. Argazkiak udal webgunean horretarako berenberegir sortutako espazioan ipini.

Hilaren 17ra arte, udalekuetarako izen emotea udaletxean. Udaleku ibiltaria 2006 eta 2010 urteen artean jaiotakoentzat, bagilaren 27tik garagarriaren 1era izango da. Udaleku txikia, 2016 eta 2019

bitartean jaiotakoentzat eta herri udalekua 2011 eta 2015 urteen artean jaiotakoentzat, bagilaren 27tik garagarriaren 8ra arte izango dira.

**BAGILAK 16
AREATZA**

08:30ean, Uparan Areatzako Jubilatua eta Pentsiodunen Elkartek antolatuta, Hernani eta Pasai Donibanera txangoa. Chillida Leku eta Albaola museoetara bisitak.

19:30ean, Euskalgaren kontzertua The Quiet Corner tabernan Bloomsday dala-ta.

**BAGILAK 17
ARANTZAZU**

19:00etan, Amelia Tiganusen berbaldua, *Las conexiones entre violencia sexual, pronografía y prostitución: propuestas éticas para vivir una sexualidad saludable*. Kulturgunean.

AREATZA

16:30etik 19:30era, Guraso Elkartek antolatuta, ikasturte amaierako jaia eskolan. Puzgarriak, arpegia margotzeko tailerra, zirkotekea, karts eta goitibehera zirkuitua, bitsaren jaia eta merienda.

18:00etan, Berbalagunek antolatuta, IV. Tortilla Txapelketea udaletxeko plazan.

ARTEA

19:00etan, Irakurleen txokoa. Joseba Sarrionandiaren *Narrazio guztiak* liburuaren gaineko solasaldia Joseba Sarrionandiagaz. Kultur Etxean.

DIMA

17:00etan, Dimako II. Berdintasun Planerako herritarrakaz saio irekia. Eskolako kamaran.

LEMOA

20:00etan, Bihotz Gorosperen *Bihotz anpuluak* kontzertua Kotxepin Kultur Etxean.

ZEBERIO

20:00etan, Ugaoko Sarea Abesbatza eta Nahikari Etxabarri Guergue-ren kantu eta literatura emonaldia Ermitabarriko San Antonion.

**BAGILAK 18
AREATZA**

Parketxeak antolatutako mendi ibilbidea, Itzinako karsta inauguratuko parkeko hainbat tontorretatik pasauz. Ibilbide zirkularra. Zailtasun ertaina. Izena emon gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

08:00retan, mendi urtekerea eleiz portikutik. Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peñak eta Lamino Kirol Klubak antolatuta. Buzoi barria ipiniko da lgiñiger espoloian, Bedargogor atxa 1.302 metro. Hamaiketako alkarteetan kontu.

ARRATIA

Makatzak talde ekologistek antolatuta, Bizikletadea Arratiatik. 10:00etan Zeanuritik urtenda. Zeanuri, Areatza, Artea, Arantzazu, Igorre, Lemoa eta Dimas.

DIMA

07:00retan, Urkiolara errogatibara oinez joateko urtekerea plazatik.

19:00etan, Nicole et Martinen *Wassilissa* zirkui ikuskizuna Ugarran.

IGORRE

02:30etan eta 05:00etan, jaietatik Arratiako herrietara bueltetako autobusa. Autobus geralekuan.

ZEANURI

07:30etan, Urkiolara errogatibara oinez joateko urtekerea San Antonio txikerraren ermitearen aurretik.

ZEBERIO

07:30etan, Austarri Mendi Taldeak antolatuta, Kantauriar mendi katera urtekerea astegoi pasan. Valdecebollas (2.143 m), El Fraile (2.001 m).

Zeberio Metal Jaialdia. 12:00etan, Paella Txapelketea; 14:30etan, paellen aurkezpena eta sari banaketea; 19:00etan, Zubialde Eskolako ikasleen emonaldia; 19:15ean, Basaki; 20:45ean, Elizabetz; 22:15ean, Rat-zinger; 24:00etan, 4 Villains eta 02:00etan DJ-a.

**BAGILAK 19
AREATZA**

09:00etan, mendi urtekerea. Areatzako



Indie-folk eskoziarra entzuteko aukerea egongo da Arteako Herriko Bentan

Bagilaren 25ean, 19:00etan, Harry Bird Glasgowsko kantari, musikari, konpositore eta aktoreak kontzertua emongo dau Arteako Herriko Bentan.

Bird-ek kontzertu ugari emon ditu bakarkako interprete moduan edo Rubber Wellies Folkster ibiltariak bere taldeagaz, Europa osoan eta Europatik kanpo. Bere lanetan, pentsamentu original, entretenigarri eta probokatzailea erakusten dau eta bere ikuskizunak, ikusgarriak izaten dira.

Bost album digital ditu *Long Way to Be Free* (2009), *The Bones on Black* (2012), *Kettle of Silver* (2013), *Bricks and Feathers* (2015) eta *Blue Angels* (2020).

Itxaronaldi luzea

Harry Bird kontzertua emotekoa zan Arteen 2020ko martiaren 27an, baina itxialdiak, geroko mobiduteko murrizketek eta Brexit-ak ezinezko egin deusie oin arte, musikariari, Arteen kontzertua emotea.

Guraso Elkartek eta Lamino Kirol Klubak antolatuta. Ibilbide bi aukeran. Eguna Gorlizeko hondartzan amaituko da. Egun osoko txangoa, hamaiketako eta bazkaria norberak eroan behar dau.

12:00etan, Areatzako Bandaren kalejireia.

BEDIA

11:00etatik 14:30era, XX. eskulangintza eta elikagaien azokea; 14:30ean, Bediako jubilatuen bazkaria.

DIMA

12:30ean, Nicole et Martinen *Arrantzalea eta haren emaztea* zirkui ikuskizuna Ugarran.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Bizkaiko Xendazaletasun V. Liga. PR56 Lemoatxa 1937 erresistentzia gunea. Aspunta (365 m)-Lemoatxa/Ganzabal (363 m).

**BAGILAK 20
LEMOA**

10:00etatik 14:00etara, garagarriaren 12ra arte, herri udalekuen lehenengo txandea HH3-LH6 umeentzako.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, hilaren 23ra arte, umeentzako Frontoiko Topaketak. Zubialde frontoian.

**BAGILAK 21
IGORRE**

19:00etan, *Hegaz* ume eta gazteen zirkui ikuskizuna Lasarte Aretzan.

LEMOA

18:00etan, kurso amaierako festa. Kantu Kolore eskolako aterpean.

**BAGILAK 22
ARTEA**

19:00etan, zineforuma *La energia de los pueblos* Onergia kooperatibako Sofia Pachecogaz. Basoa etxean.

LEMOA

10:00etatik 14:00etara, bagilaren 28ra arte, ludoteka ibiltaria.

17:00etatik 18:30era, Kalistenia Master Class edadekoentzat Ibaizabal parkean. Izena emon 647 889 040 telefonoan.

**BAGILAK 23
ARANTZAZU**

18:00etan, egurra bildu sua egiteko; 20:00etan, sardina eta sahieski erre; 21:30etan, sua izetu.

AREATZA

18:30ean, Arratiako Musika Eskolako ikasleak txokoz txoko ibiliko dira musikea eskaintzen; 20:00etan, sardinak eta San Juan sua Zubizaran.

ARTEA

20:00etan, sardina jana eta sua Santamañen.

BEDIA

Hilaren 26ra arte, San Juan jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

DIMA

Oba auzoan San Juan jaiak. Arrastian haretza ipini eta gauean sua.

IGORRE

San Juan auzoko jaiak bagilaren 24ra arte. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

LEMOA

19:00etan, umeentzako ekintzak; 21:00etan, sua eta parrilladea Kotxepin Kultur Etxearen atzeko landan.

UBIDE

Hilaren 26ra arte, San Juan jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

ZEANURI

Altuaga auzuneko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**BAGILAK 24
AREATZA**

Parketxeak antolatuta, Erdi Aroko Areatza ezetuteko jolasa telefono mobikorragez. Izena emon gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

ARTEA

19:30ean, Jai Batzordea Kultur Etxean.

DIMA

San Juan jaiak. 12:00etan, meza eta ostean barauskarria.

LEMOA

17:00etatik 18:30era, Kalistenia Master Class 16 urtetik gorakoentzat Ibaizabal parkean. Izena emon 647 889 040 telefonoan.

**BAGILAK 25
BEDIA**

02:30etan eta 05:00etan, jaietatik Arratiako herrietara bueltetako autobusa. Autobus geralekuan.

ZEANURI

17:00etan, Arratiako Goitibehera Txapelketea. Euskal Koparako puntuagarria. Jeitsiera: Soloeta-Arregia.

**BAGILAK 26
AREATZA**

11:30etik 13:00etara, te hotza, kafea leiagaz, garagardao freskoa, izozki edo batidorako ontzia egiteko tailerra. Saioa Larrearen tailerrean, Askatasuna 29 kalean. Prezioa, 18 euro. Izena emon 615 731 182 telefonoan.

DIMA

10:30ean, Arratiako Goitibehera Txapelketea. Euskal Koparako puntuagarria. Jeitsiera: Olazabal-Santuru.

IGORRE

13:30ean, Poesia hegalaria taldea eta Eingoren eskutik *Vermouth poetikoa* Zekutze tabernan.

**BAGILAK 27
AREATZA**

Garagarriaren 15era arte, herri udalekuak. Astebeteko txandak.

ARTEA

Garagarriaren 1era arte udalekuak.

ZEBERIO

Garagarriaren 1era arte udaleku ibiltaria eta garagarriaren 8ra arte udaleku txikia eta herri udalekua.

**BAGILAK 29
ARANTZAZU**

Garagarriaren 3ra arte, San Pedro jaiak. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

DIMA

Garagarriaren 3ra arte, San Pedro jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

LEMOA

10:00etatik 14:00etara, herri udalekuak 1. txandea, garagarriaren 12ra arte.

18:30ean, Antton Aranburu eta Lorena Martinen *Bidaia liluragarria* umeentzako ipuin kontaketa musika Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI


San Pedro jaiak Undurragan. Garagarriaren 3ra arte.

**GARAGARRILAK 1
ARANTZAZU**

03:30ean, jaietatik Arratiako herrietara bueltetako autobusa. Autobus geralekuan.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

SALTZEAN DODAZ

Altzari barriak eta erdibarriak. Argazkiak bialdu daikedaz edo etorri zaitezkie ikusten. Telefonoa: 666 135 596.

BATERIA SALGAI

Yamaha markako bateria saltzean dot. Laranja kolorekoa. Interesdunek deitu 676 967 854 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularrak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. Telefonoa: 629 461 077.

CADDY LIFE OHEAGAZ SALGAI

Volkswagen Caddy Life 1.9 tdi, 2007koa saltzean da. Ohegaz dator, baita atzeco portoiari ipinteko abantzia be. Interesdunek 680 683 133 telefonora deitu edo oihane.regil@gmail.com helbidera idatzi.

PISUA BEHAR DA ERRENTAN

Saharako gazte batek pisu merkea errentan hartu gura dau Igorre edo inguruetan. Lana (nominea) dauka. 10 urte inguru daroaz Euskal Herrian. Interesdunek 631 104 818 edo 607 841

058 telefonoetara deitu edo rakelgoni@gmail.com helbidera idatzi.

SALTZEAN DODAZ

Ostalaritzako makineria eta altzariak saltzean dira: oilasko burrunzia, konbekzino labea eta prijiailua. Ondo zaindutako egurrezko zibua eta ume-aulkia oparitzen dira. Burdinola argiontzia be saltzean dodaz. Telefonoa: 620 276 471.

LANA

SUKALDARI BILA

Zaztaparrak-ekoak udaleku ibixetarako sukaldari bila gabiz. Abuztuaren 1etik 12ra bitarteko lana. Informazio gehiago gura izan ezkerro idatzi zaztaparrakudalekuixiak@gmail.com-era.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Areatza Musik & Beer musika jaialdiko kamiseta bana.

Sonia Ingunza (Areatza)
Pili Munarriz (Lutxana)



2

Kotxepin Kultur Etxeak emondako bina sarrera Bihotz Gorosperen kontzerturako.

Joserra Undagoitia (Dima)
Maitane Campo (Areatza)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 20 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

umean moda
sem
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • semmoda@hotmail.com

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

begitu

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 · 94 673 70 55 · 94 612 11 96 · Faxe 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea · Igorre (Bizkaia)

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3 - 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tlf: 94-673-70-87
Tlf: 609-79-40-54

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakaria Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

begitu
eus

ETA ZU EZ ZAITUGU OINDINO
SAREAN HARRAPAU?
GERO ETA GEHIAGO GARA!

begitu
eus



802 JARRAITZAILE



242 JARRAITZAILE



2.088 LAGUN



begitu **20**
urte

**BAIETZ
50 LAGUN
BARRI EGIN!**

2022AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2022an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiaturik gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€

*Gainera Begituren produktu honek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus    

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.